LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK
alkate-udal burua
IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN
zinegotziak
JONE ZUBELDIA ALTUNA
ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA
IZARO ZUBIRIA IBARGUREN
SABINO SAN SEBASTIAN MURUA
IDAZKARIA
NEREA ESNAOLA GALAN

Lizartzan, 2023ko urriaren 25ean, arratsaldeko 19:00tan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Nerea Esnaola Galanek, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio alkateak, eta hauek izan dira jorratutako

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, 2023ko maiatzaren 9ko akta onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

HIRUGARRENA.-IRUNZUBI INDUSTRIAGUNEA ETA HERRIA LOTZEN DITUEN ARAXES ERREKAREN ONDOKO BIDE DEGRADATUA BERRESKURATZEKO PROIEKTUA ONARTZEA.

Alkateak hitza hartu du, eta azaldu du zertan datzan Irunzubi industriagunea eta herria lotzen dituen Arasex errekaren ondoko bide degradatua berreskuratzeko proiektua, horren memoriarekin batera. Proiektuaren aurrekontua, udal teknikariak egindako estimazioen arabera 77.300,15 € izango da, BEZ barne. Nahiz eta udal idazkariak aipatu duen hori adosteko kontratazio organoa alkatea dela, ez duelako ohiko sarreren %10a gainditzen (Sarrera arruntak 1.061.300, horren %10 106.130€) alkateak deritzo komenigarria dela batzarrean onartzea.

IRUNDUBI INDUSTRIAGUNEA ETA HERRIA LOTZEN DITUEN ARAXES ERREKAREN ONDOKO BIDE DEGRADATUA BERRESKURATZEKO PROIEKTUA OHIKO BATZARREAN ONARTZEKO ALKATEAREN PROPOSAMENA

"Kontuan harturik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako -LCSP 2017-, Alkatetza honek beharrezkotzat jotzen duela Irunzubi industriagunea eta herria lortzen dituen Arasex errekaren ondoko bide degradatua berreskuratzeko lanak egiteko kontratua izapidetzea.

Udalaren Zerbitzu Teknikoen txostena ikusi da. Bertan, alderdi teknikoak eta jarduketa horren bideragarritasuna zehazten dira. Idazkariak txostena eman du jarraitu beharreko prozedurari buruz, eta kontuhartzailetzak 2023 aurrekontuaren 0000.600.01.912.00 2023 partidan nahiko kreditu dagoela ziurtatu du **77.300,15 €ko gastuari aurre egiteko.**

Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz, Sektore Publikoko Kontratuak -LCSP 2017-, Alkatetza da kontratazio organo

eskuduna. Hala ere, komenigarria iruditzen da proiektua aurrera eramateko, eta espedientearekin jarraitzeko osoko bilkuraren onarpena edukitzea.

Horren arabera, indarrean dagoen legediak emandako eskumenak erabiliz eta, zehazki, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera,

Alkatetzak PRROPOSATZEN DU:

LEHENENGOA.-Udaleko teknikariek emandako txostenak kontuan hartuz, Irunzubi industriagunea eta herria lotzen dituen Arasex errekaren ondoko bide degradatua berreskuratzeko proiektua batzar orokorrean onartzea."

Bozketa. Gehiengo osoz onartu da proiektua.

LAUGARRENA.- <u>GIZARTE LANGILE POSTUA EGONKORTZEKO PROZESUAN IZENA EMANDAKO ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDA ONARTZEA</u>

Alkatetzaren 2023ko otsailaren 17ko Dekretu bidez, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen baitan, lehiaketa bereziaren deialdia eta oinarri orokorrak eta espezifikoak onartu ziren (2023ko martxoaren 2ko GAO, 42 zk.)

Lehiaketa berezi horren bidez bete beharko da Gizarte Langile plaza bat.

Hautaketa prozesu horretan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartutako eta baztertutako izengaien behin-behineko eta behin betiko zerrendak onartu behar dira. Horiek batzar orokorrak onartu behar ditu. Horretarako, azaldu da gizarte langile posturako aurkeztutako izengaien zerrenda.

NAN/DNI	Auto-balorazioa/ Auto valoración	Hizkuntza eskakizuna/Perfil lingüístico	Onartua/ez onartua Admitido/No admitido	Baztertze arrazoiak/ Razones de exclusión
***7608**	100	3.HE/PL3	Onartua	
***2496**	61,648	3.HE/PL3	Onartua	
***4974**	46,989	3.HE/PL3	Baztertua	1
***9760**	20	2.HE/PL2	Onartua	
***4599**	8,117	3.HE/PL3	Onartua	
***5511**	52,3868	3.HE/PL3	Onartua	
***4274**	26,1376	3.HE/PL3	Onartua	
***3557**	31,371	3.HE/PL3	Baztertua	1

BOZKETA: Gehiengo osoz onartu da.

BOSGARRENA.- <u>UEMAren DEKLARAZIOA ONARTZEA EAEKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIAK EUSKARARI BURUZ BALIOGABETU DITUEN ARTIKULUEN INGURUAN.</u>

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du zertan datzan UEMAren adierazpena.

ADIERAZPENA

"Gaur jakin dugu EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetu egin dituela Eusko Jaurlaritzaren 179/2019 Dekretuaren hainbat artikulu. Udal Legea garatzen du dekretuak, eta hizkuntza ofizialen erabilera arautzen du. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak uztailean Udal Legeari buruz emandako epaiaren ostean, Dekretuaren aurka egin du Auzitegi Nagusiak.

Epai hauek euskararen ofizialtasuna bera ere zalantzan jartzen dute, askotan Udal Legeak arautzen ez dituenak ere aurreikusiz, modu prebentiboan.

Eusko Legebiltzarrak kontsentsu zabalarekin onartu zuen epaitegiek baliogabetu nahi duten Udal Legea, eta azken Inkesta Soziolinguistikoak ere argi erakutsi du gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai hauek euskararen biziberritzearen aurkakoak ez ezik adostasun sozial handi baten kontrakoak ere badira. Azken batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen dute auzitan.

Horren aurrean, honako hau adierazpen hau egin nahi du Udalak:

1. Kezkaz eta larritasunez hartu dugu euskararen indarberritze-prozesuaren aurkako epai hau. Testuingurua ere kontuan hartu behar da: azkenaldian gisa bereko epai batzuk iritsi dira, eta guztietan berbera izan da norabidea. Epai hauek traba dira urteotan euskara sustatzeko bidean adostasun handiz eraiki den orubearentzat.

2. EAEko Auzitegi Nagusiaren epaiak bete-betean eragiten die UEMAk eta bertako kide diren udalek urte askoan jorratutako lan-ildoei: hizkuntza-plangintzari eta kontratazioari, adibidez. Udalak helburu nagusien artean du udalerrian euskara normalizatzea eta herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea, eta sententzia honek oztopoa besterik ez dakar. Hori jarri baitu ezbaian auzitegiak: euskararen normalizazioa. Euskara lehenestearen aurka egin du, gaztelania baztertzea delakoan. Ez da halakorik: minorizatutako hizkuntza aurrerabidera eramatea da, eskubide guztiak bermatzeko.

3. Sententzia horiek bereziki eragiten diete udalerri euskaldunei, horietan ari baitira hartzen euskaraz funtzionatzeko neurri gehien. Hori oztopo bikoitza da euskararen indarberritze-prozesuarentzat: batetik, galga jartzen diete euskara normalizatzeko neurri aurreratuenei, eta normalizazio-prozesuak badauka horren premia; bestetik, euskarak indar handiena duen lurralde-eremuei eragiten diete, eta gune horien premia gorria du euskarak. Udalerri euskaldunek ezinbestekoa dute lege-babesa.

4. Udalerri euskaldunetan, hainbat arlotan aurrera egin du euskarak hamarkada hauetan, baina oraindik bada zertan eragin. Udalean bertan ere urrats handiak egin ditu euskarak, eta gaur egun, zerbitzu-hizkuntza ez ezik, lan-hizkuntza nagusia ere bada euskara. Horretan jarraitzeko asmo sendoa du Udalak, eta aurrerantzean ere martxan jarriko ditu bere esku dauden neurri eta plangintza guztiak. Euskara da gure udalerriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko konpromisoa dauka Udalak. Justiziazkoa da.

5. Udalak, asmo hori garatu ahal izateko, ezinbestekoa du lege-orube sendoa. Hortaz, Udalak dei hau egin nahi die lege-araudia garatzeko eskumena duten gainerako erakunde guztiei: nork ere eskumenekin eta elkarlana oinarritzat hartuta, urra dezagun bidea euskararen indarberritze-prozesua lege-babes sendoarekin hornitzeko.

6. UEMAk bat egin du Euskalgintzaren Kontseiluak azaroaren 4an Bilbon antolatutako manifestazioarekin, eta epai honek beste arrazoi bat jarri du kalera ateratzeko: euskararen aurkako oldarraldia eten egin behar da. Horregatik, UEMAko kide den heinean, euskararekin bat egiteko eta Bilboko mobilizazioan parte hartzeko deia egiten die Udalak herritarrei."

BOZKETA.- Gehiengo osoz onartu da adierazpena.

SEIGARRENA.- LAGUNTZA TEKNIKORAKO ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANEAN DUTEN PARTAIDETZA DINAMIZATZEKO ZERBITZUARI ATXIKITZEKO DOKUMENTUAREN ONARPENA.

2023ko otsailaren 7an, Ministroen Kontseiluak baimena eman zuen Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren enkargua TRAGSATEC bitarteko propioari esleitzeko. Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiak zuzenduko du enpresa, eta enkarguaren funtsa da laguntza teknikoa ematea administrazioei eta dinamizatzea administrazio publikoek Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean (PRTR) duten parte-hartzea, batez ere, 5000 biztanletik beherako toki entitateetan; izan ere, horiek dira baliabide tekniko eta giza baliabide gutxien dituztenak, parte hartu ahal izateko eta Europako eta Espainiako araudien arabera dagozkion betebeharrak eta eskakizunak betetzeko.

TRAGSATEC bitarteko propioak Lizartzako Udalarekin kolaboratu ahal izateko Europatik datozen diru laguntzen gestioan, beharrezkoa da laguntza teknikoaren eta dinamizazioaren zerbitzura atxikitzeko dokumentua onartzea. Hori dela eta, osoko bilkura honetan atxikimenduaren baldintzak azaldu dira eta bozketa egin da.

Hona hemen kolaboraziora atxikitzeko dokumentuan esaten dena.

"LEHENENGOA. 2021eko apirilaren 27ko Erabakiaren bidez, Ministroen Kontseiluak Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, PRTR) onartu zuen, eta horrek inbertsioen eta egiturazko erreformen agenda garrantzitsu bat jasotzen du.
PRTR plana Europako Batzordeak onartu zuen 2021eko ekainaren 16an, eta Europar Batasuneko Kontseiluak, berriz, 2021eko uztailaren 13an.

PRTR proiektua herrialde-proiektu bat da, Espainiako ekonomia modernizatzeko,

hazkunde ekonomikoa berreskuratzeko eta enplegua sortzeko ibilbide-orria taxutzen duena, COVID-19 krisiaren ondoren, bai eta herrialdea etorkizuneko erronkei aurre egiteko prestatzeko ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduan (EB) ezarritako esparruarekin bat datorrena, hau da, 2021. otsailaren 12ko Erresilientzia Erabakiaren Erregelamendua.

BIGARRENA. AA.PP-en berdintasunezko sarbidea bermatzeko. PRTR gauzatzeko jarduketei, dauden baliabideak eta ahalmena edozein izanda ere, Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioko Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkaritzak Tecnologías y Servicios Agropecuas, S.M.E., M.P.-ri agindu zion. (aurrerantzean, TRAGSATEC) "Administrazio Publikoek Berreskuratze eta Erresilientzia Planean (PRTR) duten parte-hartzea dinamizatzeko eta laguntza teknikoa emateko zerbitzua", AA.PP. PRTRren esparruko proiektu eta ekintzetan parte har dezaten sustatzeko.

2023ko martxoaren 28an, Kontratazio Plataforman Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioko Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren enkargua argitaratu zen, Tecnologías y Servicios Agropecuas, S.M.E., M.P. enpresarentzat. (TRAGSATEC), "Administrazio publikoek Berreskuratze eta Erresilientzia Planean (PRTR) duten parte-hartzea dinamizatzeko eta laguntza teknikoa emateko zerbitzua".

HIRUGARRENA. Enkarguaren xede den laguntza teknikoa TRAGSATECek AA.PP egindako jarduera hauetan datza: atxikiak, haien beharren eta gaitasunen arabera zehaztuko direnak:

- *Dinamizazio zerbitzuaren aurkezpena.*
- *Laguntza-taldearen solaskidea esleitzea lurraldean eta/edo probintziako antena.*
- *Telefono bidezko arreta, bideokonferentzia bidezkoa edo pertsonala dinamizazio-zerbitzuaren jardueren esparruan*
- *PRTRren interesekoak izan daitezkeen deialdiak daudela jakinaraztea.*
- *Deialdi horietara aurkezteko behar den dokumentazio administratiboa eta teknikoa prestatzeko laguntza teknikoa edo laguntza.*

- *Administrazioaren eta laguntza-talde tekniko nagusiaren arteko lotura.*
- *Laguntza teknikoa edo dokumentazioa prestatzeko laguntza, emandako diru-laguntzen edo laguntzen ondoriozko jardueren gauzatzearen jarraipena egiteko (mugarrien eta helburuen txostenak, etab.). PRTRren deialdi bakoitzean eskatutakoaren arabera.*
- *Laguntza teknikoa edo laguntza teknikoa PRTRren jarraipenean eta exekuzioan, CoFFEE informazio-sistemaren barruan egindako jardueren egiaztagiriak prestatuz, araudi aplikagarriak eskatzen duenaren arabera.*
- *Dinamizazio-zerbitzuaren garapenean bildutako material, gida eta azalpenetarako sarbidea.*
- *Dinamizazio-zerbitzua garatzean identifikatutako praktika egokiak ezartzeko informazioa eta laguntza.*
- *Jardueraren helburu nagusiaren barruko beste edozein ekintza, lanen zuzendaritzak lurraldean garatzeko proposatzen duena.*

Aurreko azalpenetan aurreikusitako ondorioetarako, honako hauek egiten ditu:

ADIERAZPENAK

***Lehenengoa.-** Atxikitze-egintza honen bidez, Lizartzako Udalak "laguntza teknikorako eta administrazio publikoek Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (PRTR) duten parte-hartzea dinamizatzeko zerbitzuari" atxikitzeko borondatea adierazten du.*

***Bigarrena.** Atxikitako administrazio publikoak Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzen parte hartzen duela. Araudi erregulatzailearen araberako betebeharrak eta, zehazki, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan, PRTR kudeatzeko sistema eratzen duena, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena. eta Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiaren apirilaren 12ko 1/2022 Ebazpena, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistemaren esparruan, erakunde betearazle izaera*

argitzeko jarraibideak ezartzen dituena, neurrien ardura duten organoak eta proiektu eta azpiproiektuen organo kudeatzaileak dagozkien organoek izendatuko dituzte.

Horretarako, atxikitako administrazio publikoak konpromisoa hartzen du TRAGSATECi jakinarazteko erakunde betearazle/instrumentala den proiektu edo azpiproiektuez (instrumentalak barne) arduratzen den organo kudeatzailearen titularraren identifikazioa, eta zerbitzuaren indarraldian gertatzen den edozein aldaketaren berri emateko.

***Hirugarrena.-** Beñat Bergara Telleria solaskide izendatzea Enkarguari atxikitako TRAGSATECeko langileekin eta Enkarguaren arduradunekin edo horiek beren erakundean izendatutako pertsonarekin.*

***Laugarrena.-** Atxikitzeak ondorioak dituela Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak atxikitze-egintza honen berri ematen duenetik.*
"Laguntza teknikorako eta Administrazio Publikoek Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (PRTR) duten parte-hartzea dinamizatzeko zerbitzuari" atxikitzeko ekintza honekin bat datozela frogatzeko, modu elektronikoan sinatzen da."

BOZKETA.- Gehiengo osoz onartu da.

ZORTZIGARRENA.- <u>ESTATUKO AURREKONTU OROKORREI BURUZKO 31/2022 LEGEARI ETA MINISTRO KONTSEILUAREN URRIAREN 5EKO ERABAKIARI JARRAIKI FUNTZIONARIOEN SOLDATA %0,5 IGOTZEARI BURUZKOA.</u>

Alkateak idazkariari eman dio hitza eta honakoa azaldu du:

LEHENENGOA.- 2023ko urriaren 5eko datarekin, EUDELek jarraibidea igorri du. Horren baitan, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. 2.a artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko gehikuntza gehigarria onartzea proposatzen da.

BIGARRENA.- 31/2022 Legearen 19 2.b artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, 2023 urtean, barne Produktu Gordinaren bilakaerarekin lotutako % 0,5eko beste igoera gehigarri bat egiteko aukera aurreikusten da.

HIRUGARRENA.- Soldaten igoera baldintzatuta zegoen Kontsumoko Prezioen indize Harmonizatuarenn bilakaerara. Hori dela eta, 2022ko KPIaren eta 2023ko iraileko KPI aurreratuaren batura %6tik gorakoa izatea eskatzen zen, gehienez ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria aplikatu ahal izateko.

LAUGARRENA.- Esandakoa esanda 2022ko KPIaren aldakuntza % 5,5ekoa izan zen, Estatistikako institutu nazionalak 2023ko urtarrilaren 13an argitaratutako informazioaren arabera. Eta horrez gain, Estatistikako Institutu Nazionalak 2023ko irailaren 28an ziurtatu du 2023ko iraileko KPI aurreratua %3,2an dagoela. Ondorioz, 2022ko KPIaren eta 2023ko iraileko KPI aurreratuarne erabilerak 2022ko eta 2023ko ordainsari igoera finkoen baturaren ehuneko 6 gainditzen duela berresten da.

Proposatzen da 2023rako Estatuko aurrekontu orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19 2.1 artikuluan aurreikusitako ehuneko 0,5 gehienero ordainsaria aplikatzea. Igoera aplikatuz gero, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu efektuak.

BOZKETA.- Gehiengo osoz onartu da igoera.

MOZIOAK.-

Alkatetzat azaroak 30erako deituta dagoen freba feministtari buruzko ondorengo adierazpena irakurri du.

“Zaintzo sistema publiko komunitorioruntz

LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Ez da berria EH Bilduko kideon artean Zaintza sistema publiko komunitarioari buruzko ezta- baida. Gure jardun politikoaren erdigunean egon da egungo gizarte politiken sistemak asetzen ez gaituela ikustarazteko lan instituzionala; legebiltzarretan lege ezberdinen mugak ikusaraziz, batzar nagusietan dauden erritmo eta baliabide ezberdinek abiadura ezberdineko lurraldeak eraikitzen ari direlasalatuz...baitaproposamen ezberdinak mahai gaineratuz ere. Nabarmentze- koa da, udalerrietan egiten ari den lana baita, pasa den ikasturteko Konferentzia Munizipalis- tan Zaintza ardatza lehentasunen artean kokatu izana ere. Azken honek, azken urteetan udal ezberdinetan burutu ditugun praktika errealak ikustarazteko aukera eman zigun, eta egiteko modu partekatu, arduratsu eta eraldatzaile bat dugula azaltzekoa. 2023-2024 Plan Politikoak ere Zaintzen ardatza etorkizuneko erronka atzeraezinen artean kokatu du.

Honen guztiaren erdigunean, egoeraren irakurketa feminista bat izan dugu beti, zaintzen gai- neko ardura banaketa oraindik ere, emakumeon bizitzetan duen eragina ikustarazteko. Femi- nizatuak eta doakoak edo prekarioak diren lan hauek ordea, gure jendartea sostengatzeko ezin- bestekoak dira.

Ikasturte honetan Zaintza sistema publiko komunitarioaren inguruko eztabaidak erdigunea hartuko du, tartean Greba Feminista Orokorra egongo baita Azaroaren 30an. Honek, instituzio eta alderdiok interpelatuko gaitu, non gauden aztertu eta zer egiteko prest gauden adierazteko. Ez da berria interpelazio hau, pandemia garaian dagoeneko Bizitzak Erdigunean plataformak elkarlanerako espazio baten sorrera proposatu baitzuen. EH Bilduko kideok hasieratik izan gi- nen bertan. Norabide honetan, EH Bilduk badarama denbora bat Zaintzen inguruko eztabaidari egingo dion ekarpena lantzen eta hori ikasturte honen erdialdean aurkezteko asmoa daukagu, jendarteari egiten diogun aurrera begirako eztabaidarako ekarpen bezala.

Ikasturte honetan beraz, aurrekoan bezala, Konferentzia munizipalistak zaintza izango du ardatz, eta honek udalen gure jarduna ardaztuko dute. Bestalde, gure proposamena landu, ezta- baidatu eta aurkeztuko dugu.

Haia ere, komenigarritzat jotzen dugu, Greba Feminista Orokorra dela eta irizpide batzuk aldez aurretik zabaltzea, tokian toki izango duen dinamika propioa norabidetzeko inolako asmorik gabe.

1 EH Bilduko kideok grebarekin bat egingo dugu, haren printzipioekin bat etorrita, azken ur- teetako Mugimendu Feministarekiko elkarlanarekin koherentzia mantenduz. Hau dela eta, instituzio ezberdinetan egon daitezkeen Osoko Bilkurak aurreratzen ahaleginduko gara. Udaletako hileroko plenoa beraz, aurreratzeko eskaera egingo dugu udal ezberdinetan, eta aurrera egingo duten horietan (bi legebiltzarrak kasu), ez parte hartzeko irizpidea pasatzen dugu (salbuespenak salbuespen).

2 Ahal dela, grebaren ostean etorriko den interpelazioari begira, diagnostiko txiki bat egiten ahaleginduko gara udaletan. Aukera balego, gure udaletako etxez etxeko zerbitzua zein bal- dintzetan dagoen aztertuko dugu, adibide paradigmatikoa direla iritzita. Oposizioan gau- den udalerrietan, diagnostiko bera egiteko eskaera egin ahalko genuke. Abendurako eskue- tan izatea komenigarria litzateke, egituran landu eta datu batzuk eduki ahal izateko aurrera begirako lanketan. Badakigu ere, hainbat udalerrik haien ibilbide propioa zabalik dutela, eta posible dela haien herriari buruzko eta zaintzan oinarritutako bestelako diagnostikorik izatea. Hala izatekotan ere baliagarria izango da hauen guztien bilduma egin ahal izatea.

3 Udalez udal Mugimendu Feministaren asanbladak eta Greba Komiteak sortuko dira. Haue- kin harremana egin eta elkarlanerako borondatea adierazi.

4 Herriz herri sortu litezkeen zalantzak argitzeko, EH Bilduren egituratik Idazkaritza Femi- nistako herrialdeko ordezkariengana jo (Gipuzkoan Haizea Kortabarria, Bizkaian Izaskun Duque, Araban June Mujika eta Nafarroan Irati Jimenez).”

Ez dago besterik.

Hori horrela, 2023ko urriaren 24 ean arratsaldeko 18:30etan bukatu da bilkura. Eta horren fede ematen dut.

Lizartzan, 2023ko urriaren 25ean.

ALKATEAK FEDE EMATEN DU IDAZKARIAK